



**Helduak
Zabaltzen**

ERAKUTSIDAZU ENSÉÑAME

Gabonetako ospakizunak bukatu direla eta urte berrian sartu garelako aprobetxatuz, Helduak Zabaltzen proiektutik Kanpezura bueltatzen gara, bere lurraldeak eta jendea ezagutzen jarraitzeko.



Arabako Mendialdeko Kuadrillako egoitza izan gara, Álvaro, animatzaile soziokulturalarekin eta Marta, gizarte-langilearekin hitz egiteko.

Eskerrik asko bioi eskaini diguzuen denboragatik. Mila esker!

Asko lagundu diguzue Kanpezuko errealitatean sakontzerako orduan, eta batez ere, pertsona helduen errealitatean sakontzerakoan.

Laugarren bisita honetan Iratxe eta Goyo ere ezagutu ditugu, Oteoko bizilagunak.

Herrian eramaten duten bizimoduaz, hemen bizitzeak dituen abantailak, hiri-eremuetan eraman daitekeen bizitzarekiko desberdintasunetaz eta abarrez hitz egin digute.

Eskerrik asko bikote, hartutako denboragatik!



Leire ere ezagutu dugu, Santa Kruzeko bizilagun eta ilustratzailea.

Proiektua azaldu ondoren, Kanpezuko bizitzari buruz duen ikuspegia azaldu zigun, hiri-inguruneetako bizitzarekin alderatuta.

Eskertzen dizugu Kanpezuren izaeraren zati bat islatzen duten zure ilustrazio eder batzuk erakutsi izana.

Mila esker Leire!

Azkenik, Juana, Ntra. Sra De Ibernalo jubilatuen elkartearen presidentea gurekin egon da berriz ere, egiten ari garen prozesu honetan lagunduz.

Eskerrik asko Juana, inplikazioagatik eta eskainitako denboragatik!



Laster itzuliko gara Helduak Zabaltzen proiektuaren fase hau osatzera.

Eskerrik asko herri osoari!